



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 12a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00479. Galdera, beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00480. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00481. Galdera, adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00482. Galdera, Zientziaren Asteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00483. Galdera, familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00484. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzekeo prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00485. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00486. Galdera, "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00487. Galdera, "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00489. Galdera, "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- 11-24/PES-00490. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko tekninariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00491. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00492. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00493. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00494. Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilera-rik izan ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00495. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00496. Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00497. Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00498. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00499. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00500. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzaz hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00501. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzaz hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00479. Galdera, beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko zer jarduketa egin den beka orokorretarako aplikazio informatiko berri batekin (11-24/PES-00479). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikun-

tzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aplikazioa 2021ean martxan jarri zenetik, aplikazioan mantentze-lanak egiten ari dira arian-arian, eta deialdi bakoitzerako egokitzen da; horrez gain, noizean behin eguneraketak egiten zaizkie, bai eta sistemako hobekuntzak ere herritarrentzako irisgarriagoa eta errazagoa izan dadin.

Horretarako, hiru pertsona daude CONASarentzako enkargu batean lan egiten, eta honako hau izan da aurrekontua urtez urte: 2021: aplikazioaren enkargua: 232.120 €; 2022: 40.000 €; 2023: 35.000 € eta 2024: 75.000 €.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00480. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00480). Hona hemen galdera hori:

- Azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan, Chivite lehendakariak honako hau aipatu zuen hitzez hitz: "Gizarte Zerbitzuen

Zuzendarien Estatuko Elkartearen arabera, Nafarroa da gizarte-politiketan gehien inbertitzen duen erkidegoa, pertsonako 4.161 euro inbertitzen baititu, eta Madrilek, adibidez, 2.000 euro".

Zehazten ahal duzu nondik atera dituzun agerrialdi publiko eta ofizial batean baliatutako datu zehatz horiek?

Datu horiek bermatzen dituen iturriaren estekarik edo dokumenturik ba al duzu?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Eskatutako informazioa jasotzen duten dokumentuak erantsi ditugu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00481. Galdera, adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00481):

- Arartekoak zergatik jarri du auzitan oraintsu adingabe batek behaketa- eta harrera-zentro batean jaso duen arreta? Zer behaketa- eta harrera-zentrori buruz ari da Arartekoa? Nork kudeatzen du behaketa- eta harrera-zentro hori? Zer edukiera du eta zein da une honetan duen okupazio erreala?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialeko, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Arartekoaren txostenean aipatzen den behaketa eta harrera zentroa (BHZ) Belosoko BHZ da, 14 urtetik beherako neska-mutilen ebaluazioa egiten duena. Gizain Fundazioak kudeatzen du. Hemen duzu baliabide horren inguruko informazioa:

<https://fundaciongizain.es/es/centros-y-servicios/centro-de-observacion-y-acogida-de-menores.html>

Zerbitzu horretan hamabost plaza daude baimenduta, eta Arartekoaren txostenean azaldutako egitateak gertatu ziren unean honako hau zen okupazioa:

- 24 neska-mutil apirilean
- 26 neska-mutil maiatzean
- 22 neska-mutil ekainean
- 22 neska-mutil uztailean
- 19 neska-mutil abuztuan

Kontseilariak 11-24/PES-00406 galderari emandako erantzunean hauxe adierazten zen:

Adierazi behar da, halaber, BHZk adingabeentzako harrerako eta larrialdiko zentroak direla; beraz, etorrerak egon ohi diren garaietan gainokupazio egoerak egoten dira, baina beste une batzuetan okupazioa egokia izaten da dagoen plaza kopururako.

Nafarroako Gobernuak beste BHZ bat ireki zuen ekainean Barañainen Belosoko BHZren gainokupazioari aurre egiteko, eta neurriak hartu zituen plaza berriak sortzeko eta adingabeei arreta emateko kasuko ekipoen inguruan. Zentro horrez gain, beste BHZ bat ireki zen Orvinan duela bi urte. Esteka honen bidez, informazioa kontsultatzen ahal duzu:

<https://www.navarra.es/es/-/nota-prensa/el-gobierno-de-navarra-pondra-en-marcha-un-nuevo-centro-de-menores-entre-6-y-12-anos-ante-el-incremento-de-deteccion-de-desproteccion-infantil>

Horrez gainera, 11-24/PES-00407 galderan, sortutako premiei erantzuteko kontratatutako langileen esfortzuari egiten zaio erreferentzia.

Belosoko BHZn:

- Urtarrila: 2 pertsona gehiago
- Otsaila: 3 pertsona gehiago
- Martxo: 19 pertsona gehiago
- Apirila: 19 pertsona gehiago
- Maiatza: 25 pertsona gehiago
- Ekaina: 36 pertsona gehiago
- Uztaila: 23 pertsona gehiago
- Abuztua: 10 pertsona gehiago

Halaber, Arartekoaren txostenaren harira, gogorazi behar da Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak Arartekoaren kearen aurrean emandako erantzunean adierazten zela espedientean aipatzen den adingabeentzako baten premia artatzeko osasun langileak kontratatu zirela eguneko 24 orduetarako sarreraren unetik; adingabea soil-soilik zaintzeko langileak, hain zuzen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00482. Galdera, Zientziaren Astei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Zientziaren Astei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2024ko azaroaren 26ko 202408064 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Zientziaren Asteari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-482). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak zure galderari erantzute aldera helarazi digun informazioa ematen dizut hitzez hitz:

1. Nafarroako Gobernuak aurten zergatik ez du lagundu, bere enpresa publikoen bidez (Iruñeko Planetarioa –NICDORI atxikia–, NASERTIC, NILSA...) Zientziaren Asteak egiten?

navarra.es webgunean kontsultatzen ahal denez, Zientziaren Asteen lehenbiziko edizioak Nafarroako Gobernuak berak antolatzen zituen Nafarroako Berrikuntza Agentziaren (ANAIN) bidez.

Ondoren, 2012. urteaz geroztik, Zientziaren Lagunen Klubak hartu zuen bere gain zeregin hori. Hauxe adierazten dute haien webgunean bertan: Zientziaren Lagunen Kluba 2012. urtean sortu zen Iruñean (Nafarroa). Irabazi asmorik gabeko erakundea da, zientzian interesa duten pertsonak osatua, eta helburutzat du dituzten ezagutzak eta ikasteko gogoak partekatzea ez lanekoa ez akademikoa ez den ingurune batean.

Zientziaren Asteak klub horrek antolatzen ditu, webgunean bertan zehatz-mehatz azaltzen denez, eta hainbat entitatek laguntzen diete, Zientziaren Lagunen Klubaren webguneko “Zientziaren Asteak” apartatuan zehazten denez. Apartatu horrek honako helbide honetara birbideratzen zaitu: <https://semanasciencianavarra.org/>

Galderan aipatzen diren sozietate publikoei dagokienez:

– NILSAk ez du parte hartu Zientziaren Astea.

– NASERTIC eta NICDO, Planetarioaren bidez, ekitaldira batu ziren egitarau propioarekin. Halaber, edizio honetan Planetarioak zenbait dibulgazio jarduera programatu zituen (“Las chicas somos guerreras... y también ingenieras” erakusketa, zenbait ekoizpen erakutsi ziren kupulan, herritarrentzako zientzia tailerrak egon ziren); guztiak dira Planetarioaren ohiko programazioaren parte.

NICDOren Komunikazio Departamentua harremanetan jarri zen Zientziaren Lagunen Klubarekin programazio hori bidaltzeko, haiek webgunean jaso zezaten (<https://semanasciencianavarra.org/>), aurreko urteetan egin bezala, baina ez zioten erantzunik eman mezu elektronikoko horri. NASERTIC ez da proaktiboa izan ildo horretan, eta ez da harremanetan jarri eragile batekin ere.

– Bestalde, TRACASAK, zehazki TracasaWomenTIC taldeak enpresako beste boluntario batzuekin batera, Eguesibarko Zientziaren Astea lagundu du, zeina azaroaren 4tik 10era bitarte izan baitzen (Semana de la Ciencia - Ayuntamiento Valle de Egüés | Eguesibarko Udala).

Talde Tracasa Instrumental eta Tracasa Global entitateetako emakumezko kideek osatzen dute, eta haien helburua da emakumeak teknologiararen sektorean gehiago ikusaraztea eta STEM eremuan duten rola sustatzea. Ekintza horren barnean, TracasaWomenTIC taldeak eta enpresako beste boluntario batzuek ikasleentzako bi tailerretan lagundu zuten. Batek “Imagina con tecnología” izan zuen izena, eta adimen artifizialarekin esperimenduak egin ziren, eta, bestean, “Ingenierando el futuro” izenekoan, teknologiararen eta sateliteen mundua eman zen ezagutzera.

2. Erabakia jakinarazteko komunikazio idatzirik egon al da? Baiezkoa bada erantzuna, idazki horien kopia bat eskatzen dugu.

Ez da idatzizko komunikaziorik egon aipatutako sozietate publikoek hartutako erabakiak jaso dituenik.

3. Erabaki hori 2025erako mantenduko al da?

Erantzun hau eman den egunean ez da inolako erabakirik hartu Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoetan Zientziaren Astea parte hartzearen inguruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00483. Galdera, familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00483):

- Zer arauditan jasotzen da familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea dela?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Ikaslearen familia harrerako egoera, ikastetxe batera joateko lehentasunezko irizpide gisa, honako arau honetan dago jasota: 33/2021 Foru Dekretua, apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituena.

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5953730>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00484. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00484 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuaren inguruan. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Espediente horren harira jakinarazi behar da jadanik helarazi dela informazio espezifiko honako hauen bidez:

– 11-24-PEI-00814: kontratazio espedientearen kopia bidali da informazio eskaerari erantzuteko.

– 11-24/COM-00155: agerraldia 2024ko azaroaren 20an Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean, Klima-aldaketaren Herritar-batzarra eratzeko prozesua azaltzeko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Agindu bidez Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra arautzen da, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legeko 15. artikuluan jasotakoa.

Foru Agindu horren 4. artikuluko 1.b) apartatuan honako hau aipatzen da: eztabaida prozesuetan espezializatutako talde bideratzaile pribatu bat, parte-hartzaileak hautatu eta saioak diseinatu eta dinamizatuko dituen eta laguntza tekniko eta logistikoa emanen duena. Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak kontratatuko du talde hori.

Aurrekoarekin bat, kontratuak xedetzat du, oinarrian, laguntza logistikoa ematea, bai eta saioak diseinatzea eta dinamizatzea ere, gaien eta gai zehatzi buruzko informazioa ematen ahal dutenen proposamena adituen taldearen ardura delako. Ildo horretatik, eta aurrez horrelako prozesuak kontratatzeko esperientziarik ez zegoenez, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoak erabaki zuen, batetik, gomendagarria zela tokiko enpresa izan zedila, eta, bestetik, bat etorri garatu beharreko lanekin, jo zen munta txikiko kontratua izan behar zuela, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Planteamendu bikoitz horretan oinarrituta, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoak bi enpresari luzatu zien deia, jotzen baitzen lana egiten ahal zutela. Biler egiteko deialdian bertan dokumentazioa eta web estekak eman zitzaizkien enpresa horiei, zituzten zalantzak bileran bertan ebatzi ahal izateko, enpresek lana ondo kalibratu ahal izateko.

Bileraren ostean, biek aurkeztu zuten eskaintza ekonomikoa. JPlk aurkeztutako proposamen teknikoa kontratuaren premietara egokitzen zenez, eta helarazitako eskaintza ekonomikoa 15.000 eurotik behetikoa zenez (BEZik gabe), baliabide ekonomikoak eta administratiboak efizienteki erabiltzeko erabaki zen munta txikiko kontratu bat izapidetuko zela, bat etorri Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan ezarritakoarekin; hortaz, artikuluko horretako 2. puntuaren arabera kontratu mota horretarako jasotako prozeduraren arabera izapidetu zen: 2. Kontratuaren tramitazioarako, alde aurreko kreditu erreserba egitea besterik ez da eskatuko, hala egitea beharrezkoa izanez gero kontratazio organoa kide den adjudikazio botereari aplikatu beharreko aurrekontu- eta kontabilitate-araudiarekin bat. Kasuan kasuko faktura aurkezte ere eskatuko da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00485. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-485 galdera egin du, jakiteko ea Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kon-

tseilariak inolako parte-hartzerik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEK, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, pertsona batek ere ez zuen parte hartu Gobernu kide gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00486. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-486 galdera egin du, jakiteko ea Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako

Kontseilaritzako arduradun politikoren batek inolako parte-hartzerik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, Memoria eta Bizikidetzako Kontseilaritzako arduradun politiko batek ere ez zuen parte hartu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00487. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-487 galdera egin du, jakiteko ea Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako

Kontseilaritzako teknikariren batek inolako parte-hartzerik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, Memoria eta Bizikidetzako Kontseilaritzako teknikari batek ere ez zuen parte hartu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00489. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-489 galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek

inolako parte-hartzerik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEek, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politiko batek ere ez du parte hartu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00490. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-490 galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren batek inolako

parte-hartzerik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEK, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekin-tzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikari batek ere ez du parte hartu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekin-tzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00491. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-491 galdera egin du, jakiteko Nafarroako

Memoriaren Institutuak zer balorazio egiten duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko prozesuaren inguruan. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Memoriaren Institutua Gobernuaren unitate teknikoa da, Zerbitzu Zuzendaritzaren izaera du eta ez du haren zereginen artean aipatu duzuen erabaki politikoaren eta kidekoen inguruko balorazioak egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00492. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-492 galdera egin du, jakiteko Memoria eta

Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako proposamena negoziatzeko eta diseinatzeko prozesuaren inguruan. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00493. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-493 galdera egin du, jakiteko Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak legegintzaldi honetan zehar bilerarik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraisteko

eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialisten plataformarekin, eta balizko bilera horien ondorioak zeintzuk izan ziren jakiteko ere bai. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoei eguneroko lanean maiz egiten dituzte bilerak eta lantaldeak elkarte memorialistekin. Gobernuak 2023-2027 legegintzaldirako hartutako eta PSNk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekinek sinatutako erabakiaren parte da hori, eta, beraz, zenbaitetan aztertu da elkarte memorialistekin, inolako ondoriorik gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00494. Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-494 galdera egin du, jakiteko Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradunen batek legegintzaldi honetan zehar bilerarik izan duen “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraisteko

eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialisten plataformarekin, eta balizko bilera horien ondorioak zeintzuk izan ziren jakiteko ere bai. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Memoriaren Institutuko langileek, Nafarroako Gobernuaren Memoria eta bizikidetzako, Kanpo Ekintza eta Euskarako Departamentuaren unitate teknikoa den aldetik, eguneroko lanean maiz egiten dituzte bilerak eta lantaldeak elkarte memorialistekin. Gobernuak 2023-2027 legegintzaldirako hartutako eta PSNk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekin sinatutako erabakiaren parte da hori, eta, beraz, zenbaitetan aztertu da elkarte memorialistekin, inolako ondoriorik gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00495. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-495 galdera egin du, honako hau:

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentua eraistea aho batez eskatu dutela eta eskari hori PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH

Bilduk adostu duten proposamenaren antagonikoa dela: PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk beste esanahi bat emateko adostutako proposamen eztabaidagarrian Maravillas Lamberto izena erabiltzen da faxismoa salatzeke eta memoria demokratikoaren aldeko zentroa izanen litzatekeena izendatzeko. Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten du basakeria frankistaren ikono baten izena horretarako erabiltzea dela-eta? Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00496. Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-496 galdera egin du, jakiteko ea kontseilariak

egokitzat eta beharrezkotzat jotzen duen lege aldaketa bat aurkeztea errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legean, elkarte memorialisten aho bateko eskariaren guttiz kontrakoa den proposamen bat garatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kontseilari honek hainbat aldiz adierazi du, nola Parlamentuko egoitzan hala ekitaldi publikoetan eta komunikabideetan, beharrezkotzat jotzen zuela 33/2013 Foru Legea alda dadila, bermatze aldera monumentu horrek toki frankista izaten jarraitzen duela eta ez zaiola beste esanahi bat eman epai eta irizpen batzuk adierazten duten bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00497. Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-497 galdera egin du, jakiteko ea Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egokitzen eta beharrezkotzat jotzen duen lege aldaketa bat

aurkeztea errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legean, elkarte memoria-listen aho bateko eskariaren guztiz kontrakoa den proposamen bat garatzeko. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak, kontseilariarekin bat etorritik, hainbat aldiz adierazi du, nola Parlamentuko egoitzan hala ekitaldi publikoetan eta komunikabideetan, beharrezkotzat jotzen zuela 33/2013 Foru Legea alda dadila, bermatze aldera monumentu horrek toki frankista izaten jarraitzen duela eta ez zaiola beste esanahi bat eman epai eta irizpen batzuk adierazten duten bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00498. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEK, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEK, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-498 galdera egin du, honako hau jakiteko: “PSN-PSOEK, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan hitzez hitz jasotzen da nabarmendu egiten dutela "elkarte memorialistek egindako lan

goraipagarria, isiltasuna apurtzeko, egia ezagutzeko eta senideak berreskuratzeko lanari ekin baitzioten, hori gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea”; Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariak bestelakoa eskaintzen dute, ordea. Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten du horri buruz?”. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak ez du haren zereginen artean aipatu duzunaren gisako akordioen inguruko balorazioak egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00499. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei” monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-499 galdera egin du, honako hau jakiteko: “PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan hitzez hitz jasotzen da nabarmendu egi-

ten dutela "elkarte memorialistek egindako lan goraipagarria, isiltasuna apurtzeko, egia ezagutzeko eta senideak berreskuratzeko lanari ekin baitzioten, hori gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea"; Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariak bestelakoa eskaintzen dute, ordea. Nafarroako Memoriaren Institutuak zer balorazio egiten du horri buruz?”. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Memoriaren Institutua Gobernuaren unitate teknikoa da, Zerbitzu Zuzendaritzaren izaera du eta ez du haren zereginen artean aipatu duzuen erabaki politikoaren eta kidekoen inguruko balorazioak egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00500. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-500 galdera egin du, honako hau:

Monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioan honako hau jasotzen da: "Akordio honetan adostutako eraikinaren eraldaketa gauzatea eta etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa

kudeatzea Iruñeko Udalaren arduraren izango da; hala ere, Nafarroako Gobernuaren memoria-politika publikoak direla-eta, zeinek laster Rozalejo jauregian izango duten egoitza, bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetzak-hitzarmenak sustatuko dira, proiektu hori bultzatzeko".

Nafarroako Memoriaren Institutuarekin inolako harremanik izan al da alde aurretik, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetzak-hitzarmenak sartzearen egokitasuna aztertzeko? Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekin-tzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Memoriaren Institutua Gobernuaren unitate teknikoa da, Zerbitzu Zuzendaritzaren izaera du eta ez du parte hartu aipatu duzun akordio politikoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekin-tzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00501. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko, 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak PES-501 galdera egin du, honako hau:

Monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioan honako hau jasotzen da: "Akordio honetan adostutako eraikinaren eraldaketa gauzatzeari eta etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa kudeatzea Iruñeko Udalaren ardura izango da;

hala ere, Nafarroako Gobernuaren memoria-politika publikoak direla-eta, zeinek laster Rozalejo jauregian izango duten egoitza, bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetzak-hitzarmenak sustatuko dira, proiektu hori bultzatzeko".

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin inolako harremanik izan al da alde aurretik, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetzak-hitzarmenak sartzearen egokitasuna aztertzeak? Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aipatutako erabakiaren ostean zure talde politikoak emandako prentsaurrekoan adierazi zenuenez, PSN, Geroa Bai eta EH Bildu taldeen arteko erabakia da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, pertsona batek ere ez zuen parte hartu Gobernuko kide gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde